

1/2024 TXOSTENA, URTARRILAREN 30EKO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSOKO BILERAKOA

XEDEA: ALDAKETA-DEKRETUAREN EGITASMOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK KUDEATZEKO EREDUA ARAUTZEN DUEN MARTXOAREN 10EKO 36/2020 DEKRETUA ALDATZEKO.

I.- AURREKARIAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren administrazioa berritzeko eta modernizatzeko konpromisoa hainbat ekimenetan gauzatu da, teknologiari eta antolamenduari dagokienez gizartearekin harremanetan jartzeko modu berrietara egokitzeko, informazioaren teknologien sektorean etengabe eta azkar gertatzen ari diren aldaketei baldintza onenetan aurre egiteko eta gizartearen eskaerei eta premiei kaudimenez, arintasunez eta eraginkortasunez erantzuteko moduan.

Hala, bada, konpromiso hori mamitzeko, hainbat arau onartu dira, besteak beste 35/1997 Dekretua, otsailaren 18koa, informazio eta telekomunikazio sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen, Dekretu horren xedea da informazioaren eta komunikazioaren teknologia antolatzeko oinarriak ezartzea, arlo horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoarentzat politika estrategiko komuna ziurtatzeko.

Ondoren, martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Kudeatzeko Eredua arautzekoak) informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan politika komun eta konbergentea ezartzea du helburu, antolamendu-mekanismo koordinatu, eraginkor eta iraunkorrak ezarriz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei zerbitzua emateko.

Dekretu horrek inplementatutako ereduaren asmoa da efizientzia operatiboa handitzea, eskura dauden baliabideak ahalik eta gehien baliatzeko, era askotako neurriak hartuta, hala nola: konponbide teknologikoak estandarizatu eta integratzea, teknologia horiek kudeatzea errazagoa eta efikazagoa izan dadin; konponbideak berriz erabiltzeko eta beharizan komunak identifikatzeko mekanismoak bultzatzea, jasangarritasun ekonomiko handiagoa lortu dadin, eta era guztietako bikoiztasunak desagerraraztea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietan egiten den inbertsioaren errendimendua handitzea.

Azkenaldian, 2023ko abenduaren 19ko Gobernu Kontseiluak onarpena eman zionez EAEko Sektore Publikoaren Datuen Gobernantza Estrategiari, hori lantzen jardun gara buru-belarri. Plan horren helburua da datuak gero eta helduago jartzea, hartara, gaitasun analitiko eta prediktibo handiak dituen sektore publikoa taxutzeko EAEn, datuetan oinarritutako erabaki



arinak hartzeko aukera emango duena («Data-driven Gobernu» edo datuen bidez gidatutako Gobernu), eta, gainera, datuon erabilera orokor eta adimentsua (instituzionalizatu eta zeharkakoa) egingo duena. Kontua da funtsezko baliabide horren ohiko praktika arautu izatea, aktibo estrategiko eta lan-prozesuen ardatz gisa eta herritarrentzako politika eta zerbitzu publikoen kudeaketan erabakiak hartzeko ardatza izan dadin.

2023ko abenduaren 27an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak txosten-eskaera aurkeztu zuen Batzorde honetan, aipatutako 36/2020 Dekretua aldatzeko dekretu-proiekturako, sortutako behar berrietara egokitzeko aipatutako dekretu hori.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG_DEC_370/23_04).

II.- ESKUMENA.

Hasteko, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 3. ataleko 1. artikulua xedatzen duenez, «xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak».

Halaber, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren aurreproiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Nahitaezko txostenak prestatzea, kasu hauetan:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Kontratazio publikoaren eremuan eragina duen xedapen-proiektua denez, txosten hau onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak dauka, 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua araberak.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Arau-proiektuak titulu bat, azalpen-zati bat eta xedapen-zati bat ditu. Xedapenen zatiak hemezortzi apartatuz osatutako artikulua bakar bat eta azken xedapen bat ditu (egin beharreko aldaketak).



Testuaren zati hauek aldatu egingo dira:

1. 11. artikulua, IKTen Batzorde Estrategikoaren eginkizunei buruzkoa, 3. apartatua.
2. 12. artikulua, Batzorde Estrategikoaren osaerari buruzkoa, 1. apartatua -b), c) eta d) letrak-.
3. 13. artikulua, IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubideari buruzkoa, 2. apartatua.
4. 15. artikulua, IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzari buruzkoa, g) azpi-letra.
5. 16. artikulua, IKT zerbitzu errepikariak kudeatzeko araubidea, 1. apartatua.
6. 17. artikulua, Errepikariak ez diren IKT zerbitzuak kudeatzeko araubidea, 1. eta 2. azpiatalak.
7. 20. artikulua, IKT ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeari buruzkoa, 4. apartatua.
8. Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.2. artikuluko 5. paragrafoa (Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzen duena, azken xedapenetako lehena).
9. Urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretua, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (6.1.e artikulua, azken xedapenetako bigarrena).
10. Sailaren egitura ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 6. artikuluko 5. paragrafoa, azken xedapenetako bigarrena.
11. Sailaren egitura ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 21. artikuluko 2. paragrafoa, azken xedapenetako bigarrena.

Honako hauek gehitu dira:

1. IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzioei buruzko 11. artikuluko 1. apartatuaren k azpiapartatua.
2. 12. artikuluko 3. apartatua, IKTen Batzorde Estrategikoaren osaerari buruzkoa.
3. 13. artikulua, IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubideari buruzkoa, 5. apartatua.
4. 14. artikuluko 1. apartatuaren i) letra, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailei eta erakundeei buruzkoa.
5. 15. artikuluko j), k), l), m), n) eta ñ) azpiatalak, IKTen arloko zuzendaritza eskudunari buruzkoak.
6. IKT zerbitzu bateratuen kudeaketa bateratuari buruzko 18. artikuluko 1. paragrafoaren e) eta f) azpiatalak.
7. IKT zerbitzuen enkarguei buruzko 19. artikuluko 6., 7. eta 8. apartatuak.

Horiren guztiaren justifikazioa zera da: zenbait alderdi hobetu nahia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Datuen Gobernantzaaren Estrategian jasotakoarekin bat etorri beharra, estrategia horretan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzari ematen zaion zeregina indartuz.

Horrez gain, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietarako Batzorde



Estrategikoaren lana arindu eta erraztu nahi da. Batzorde hori ereduaren funtzionamendurako oinarrizko elementua da, hari baitagokio IKT Plan Estrategikoa ezartzea eta hura gainbegiratzeko eta jarraitzeko baldintzak zehaztea. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren IKTen arloko koordinazioa bultzatzea du helburua.

Azter ditzagun alderdi nagusiak:

Kendu egin da 9. artikularen c) letra, eta, ondorioz, indargabetuta geratu da Gobernu Kontseiluak zeukan eskumena akordio bidez onartzeko IKT zerbitzu errepikariak eta haien prestazio ekonomikoak modu bateratuan kudeatzeko eta emateko enkargua, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzari esleitu zaio enkargu hori. Ildo horretan, EAEko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/2023 Legearen 38.1 artikulua ezartzen du, aurreko urteetan bezala, bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguek ez dutela Gobernu Kontseiluaren gastu-baimenik behar, 5.000.000 eurotik gorakoak izan arren.

Gogora ekarri behar dugu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 32. artikulua, 31. eta 33. artikuluekin batera, baliabide propioei egindako enkarguen erregulazioa ezarri zuela, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 86. artikularen aurreikuspenarekin osatuta (formalki oinarrizkoa ez den manua). Hala, bitarteko propioari egindako enkargua kontratu-izaeratik kanpo geratzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32.1 artikularen amaieran, ez baitu betetzen borondate-akordioaren betekizuna eta, horren ondorioz, mandatuaren negozio juridikoaren berezko izaera baitu. Horregatik, SPKLren 6.1 artikuluko bazterketetan sartuta dago, ez baita kontratu bat, Europar Batasuneko zuzentarauen arabera. Hala ere, "botere esleipen-emaileak mamitutako alde bakarreko jarraibideen mende dago, eta bitarteko propioak betearazi behar ditu".

Azaldutakotik ondorioztatzen dugu bitarteko propioari egindako enkargua lankidetzara publiko moduan taxutu dela. Modu horretako lankidetzara publiko horrek kontratuzkoa ez den izaera instrumentala du, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak ditu, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan (kontraprestazio ekonomikoaren eta kontratatzailearen profileen nahitaez agertu beharreko publizitatearen mende daudenak, eta kontratu-errekurtsoen auzitegietan errekurrizteko modukoak izanik).

Era berean, sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundeak "botere esleitzailen baliabide propioetat eta zerbitzu teknikoetat" har daitezke, eta botere esleitzailetat hartzen ez diren gainerako ente eta sozietatetat ere bai, baldin eta SPKLren 32. artikulua Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL) 86. artikulura igortzen duen baldintza eta betekizunak betetzen badituzte.

Gainera, dagoeneko ezarrita dago baliabide propioen eta zerbitzu teknikoaren izaera aitortzeko araubidea: Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluaren 1. atalean.

Erkidegoaren ikuspegitik, 2014/24 Zuzentaruak honakoa ezartzen du: "estatu kideei ezin die kendu zerbitzuak emateko, obrak egiteko edo materialak hornitzeko modu bati, beste baten kaltetan, pribilegioa emateko askatasuna" (EBJAren epaia, Irgita gaiari buruzkoa). Gogoan izan baliabide propio bati enkargatuta prestazio jakin batzuk lortzea autoantolaketaren



eremuko berezko erabakia dela. Ildo horretan, SPKLren 32.1 artikulua ezartzen duenez, botere adjudikatzailerak beren gisan antolatu daitezke obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak zuzenean gauzatzuz, bitarteko propio pertsonifikatu batez baliatuta.

Era berean, komeni da aipatzea KEAANren ekainaren 16ko 696/2022 Ebazpenaren irizpidea. Horren arabera, gure ordenamenduan eta, oro har, erakunde bat beste baten bitarteko propietzat (pertsonifikatutzat) hartzeko Europar Batasuneko Zuzenbidearen parametroak betetzen direnean, erakunde eskudunak enkargua aurkeztea ez da salbuespenezko neurri bat, ezta subsidiarioa ere, prestazioaren lizitazioari edo kanporatzeari dagokionez; izan ere, lizitazioa edo kanporatzea ezinezkoa denean edo eraginkorra ez denean, orduan izango da legezkoa, ez beste inoiz, baina, beste edozein jarduketa publiko bezalaxe, legezotasun-printzipioaren mende egotekotan. Ildo horretan, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituenak, 55. artikuluan jasotzen du bitarteko propioko enkarguak ere erabil daitezkeela.

Hala ere, kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta efizientziaren gaineko arriskuak ekar ditzakenez, bitarteko propioari egindako enkargua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.1.i) artikulua honako alderdi hauek jaso beharko ditu: enkargua egiten duen erakundeak baliabide zuzen nahikorik ez daukala, enkarguaren erakunde hartzailea formalki (xede soziala egoki den) edota materialki egoki den (baliabide egoki nahiko badagoen), eta baita kudeaketaren eraginkortasunaren inguruko kontuak ere; hau da, jasangarria eta eraginkorra ote den, errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatuta (ik. 41/2019 Ebazpena, otsailaren 19koa, Andaluziako Juntako Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegiarena, eta 105/2018 Ebazpena, ekainaren 15ekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Kataluniako Auzitegiarena).

Beste alde batetik, k) letra gehitu zaio 11. artikulua 1. apartatuari. Horren bidez, IKTen Batzorde Estrategikoari eginkizun hau esleitzen zaio: «*nahitaez informatzea beste administrazio, entitate, erakunde edo enpresa publiko edo pribatu batzuekin IKTen arloko zerbitzu eta ikerketa berriak sartzeko, garatzeko eta trukatzeko egindako hitzarmenak (...)*». Alegia, zehaztuta uzten du hitzarmenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek egingo dituela, eta estatuko edozein administraziok sinatu ditzakela.

Komenigarri da, halaber, sinatuko diren kontratuei buruzko aipamena gehitzea; izan ere, praktikan, zerbitzuak eta ikerketak trukatzeko bitarteko nagusietako bat dira. Halaber, berriazko aipamen bat egitea gomendatzen dugu, kontratazio publikoaren arloan aplikatzekoa den legeriaren eta hura garatzeko araudiaren mende egon beharraz.

SPAJLren 48.3 artikulua arabera: hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu beharko du, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea erraztu beharko du, onura publikoko jarduerak egiten lagundu beharko du eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete beharko du.

Are gehiago, finantza-konpromisoak ere badakartzaten hitzarmenek finantza aldetik jasangarri izan beharko dute, eta horiek sinatzen dituztenek ahalmena izan beharko dute



hitzarmena indarrean dagoen bitartean beren gain hartutakoak finantzatzeko. Era berean, kontratuei dagokien onura ekonomikorik ez dagoela egiaztatu behar da; hots, alderdien artean konpentsazio ekonomikoko araubideren bat egonez gero, konpentsazioa prestazioaren benetako kostuan oinarritu behar da, alde batera utzita merkatu-operatiboaren merkataritza-mozkinaren marjina (ikus 2014ko abenduaren 11ko EBJA, C-113/13 auzia, Azienda sanitario locale).

Gainera, arrazoiak azaldu beharko direla adierazita utzi da, eta, horren ondorioz, memoria bat prestatu beharko da adierazteko benetan beharrezkoa dela eta egoki dela, zer eragin ekonomiko izango duen, jarduera kontratuz apartekoa dela, eta zer publizitate- eta kontrol-neurri erabiliko diren.

SPKLren 6. eta 31.1 artikuluek lege honen eremutik kanpo uzten dituzte lege honetan edo administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukian sartzen ez diren hitzarmenak, baldin eta:

- Esku hartzen duten erakundeek ez badute merkatu-bokaziorik: lankidetzan egitekoak diren jardueren % 20 edo gehiago merkatu librean egiten badituzte, alegia.
- Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzatza bat ezartzea edo garatzea badakar, zertarako eta dagozkien zerbitzu publikoak amankomunean dituzten helburuak lortzeko moduan emateko.
- Lankidetzaren oinarria interes publiko hutsari lotuta badago.

Sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak ere SPKLtik kanpo geratzen dira, baldin eta hitzarmen horien edukia ez badago lege honetan edo administrazio-arau berezietan araututako kontratuen barruan, nahiz eta kontratuaren eta hitzarmenaren arteko mugaketa lausoagoa izan daitekeen.

Beraz, ziurtatu egin behar da partikularrak eta erakunde publiko zehatzak lortu nahi duten interes publikoaren helburu komuna, bai eta zorrotz betetzen direla kontratazio publikoko araudia ez aplikatzea baliatuz inork hitzarmenaren figura iruzurretarako erabiltzea saihesteko jarritako baldintzak. Hau da, hartutako erabakiak behar bezala errespetatu behar ditu beharraren, proportzionaltasunaren, efizientziaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Era berean, i puntua gehitu zaio 14. artikulua 1. paragrafoari: *«Eguneratuta edukitzea eta IKTen Batzorde Estrategikoari eta IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzari jakinaraztea dituzten IKT baliabideen inbentarioa eta erabilitako IKT zerbitzuen zerrenda (bateratzeko duten aukeraren arabera sailkatzeko), bai eta IKTen arloan dituzten beharrizan eta igurikimenak ere.»* Gai hau interesgarria da, beharrezkoa baita informazio eguneratua izatea, zerbitzuak emateko eta planifikatzeko aukerak ondo ebaluatuko baldira; izan ere, botere publikoek beren jardunaren eragina baloratu behar dute, eta interes orokorrerako aukera onuragarriena aukeratu.

Aldatu egiten da 15. artikuluko g) letraren edukia, IKTen arloko zuzendaritza eskudunaren eginkizunei buruzkoa. Lehen aipatutako lehenengo puntuan egindako aldaketaren ondorioz, Zuzendaritzari kendu egin zaio Gobernu Kontseiluari IKT zerbitzu errepikarietarako enkargua onartzeko erabakia proposatzeko zeukan eskumena. Horren orde, datuen gobernanzari buruzko eskumen berri bat erantsi da: erakundearen datuen gobernanzaren estrategia gidatu



eta hedatzeko eskumena, eta sistemaren kudeaketa eraginkorra, etikoa eta arduratsua ziurtatzeko jarraibideak ezartzekoa.

Eginkizun berriak gehitu zaizkio IKTen arloko zuzendaritza eskudunari, 15. artikuluan jasoak. Hala, artikuluko horren j) letra berriak IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzari esleitzen dio IKT zerbitzu errepikariak bateratuta kudeatzeko eta emateko enkargua onartzea; m) letrak, berriz, aipatutako zuzendaritzari esleitzen dio enkarguak sinatzea, errepikariak ez diren eta konbergenteak diren IKT zerbitzuak direnean; eta n) letrak, azkenik, IKT zerbitzu ez-errepikarien enkarguen suskribatu, zuzendaritzaren beraren finantzaketarekin.

Gogoratu behar da indarrean dagoen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren xedapen gehigarriak ezartzen duela hiru bitarteko propio pertsonifikatu daudela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeak: EJIE, S.A., Itelazpi, S.A. eta Izenpe, S.A. Horregatik, komeni da aipatutako hiru erakundeak arau-proiektuan aipatzea, Gobernu Kontseiluak gaur arte onartu dituen IKT zerbitzuen enkarguen aurrekariak kontuan hartuta.

Bestalde, IKT zerbitzu errepikarien kudeaketa berria arautu da (16. artikulua, 1. atala), eta, aurreko aldaketekin bat etorritik, ezarri da IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzaren eskumena izango dela IKTen zerbitzu errepikariak eta horien kontraprestazio ekonomikoak batera kudeatzeko eta emateko enkargua. Era berean, enkargu horren gehigarriak luzatzeko eta onartzeko eskumena jaso du, bai eta Zuzendaritza horrek beharrezko txosten juridikoa egiteko aukera izango duela ere, indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko.

Aplikatu beharreko legeriak ezer zehazten ez badu ere, gomendatzen da enkarguaren iraupenak ez dezala gainditu hasieran aurreikusitako beharrezko betetzeko arrazoizko epea; horretarako, aldian-aldian ebaluatu behar da ea hasieran mandatuaren iraupena zehazteko aintzat hartutako inguruabarrak aldatu diren. Era berean, enkarguaren eta, hala badagokio, haren luzapenen iraupena ezartzerakoan, kontuan hartu behar da enkarguetan ez dagoela norgehiagokarik, eta, beraz, iraupen luzeko enkargu baten eskumenaren gaineko eragin negatiboa handiagoa izan daitekeela.

Bestalde, 17. artikulua lehen bi apartatuak aldatu dira, eta ezarri da IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak eskumena duela errepikariak eta konbergenteak ez diren IKT zerbitzuen enkarguak sinatzeko eta IKT ez diren eta konbergenteak ez diren zerbitzuen enkarguak sinatzeko, baldin eta horien finantzaketa zuzendaritzari berari badagokio. Konbergenteak ez diren gainerako IKT zerbitzu ez-errepikakorreki dagokienez, IKTen Plan Estrategikoan ezarritakoa beteko da.

Era berean, komeni da enkarguen xede diren prestazioak identifikatzea eta kontratazio publikoko jardueren zerrendaren barruan katalogatzea, enkarguaren xedea behar bezala zehazteko eta aukera posibleen arteko konparagarritasun handiagoa mamitzeko; halaber, emaitzen eta kostuen aurreikuspen ona egitea ere komeni da (kalitatea-prezioa), antzeko helburua duten enkargu eta kontratuen datu historikoetan oinarrituta.

Premiazko kasuren bat gertatuz gero, gomendagarria da zehaztea zer neurritan laburtu daitezkeen epeak bitarteko propioari enkargatuta, betiere kontratazio publikoko araudiaren arabera. Gainera, kasu horietan, mandatuaren edukia berehala egin beharreko jardueretara



mugatu beharko litzateke, eta gainerako jarduketak norgehiagoka-prozeduren mende jarri beharko lirateke.

Hala, bada, 19. artikulua 6. apartatua gehitu da, Dekretuaren 20. artikuluan IKT ondasun eta zerbitzuen kontratazioari buruz xedatutakoaren antzera, eta ezarri da IKTen arloko zuzendaritza eskudunak nahitaezko txosten loteslea egin behar duela IKT zerbitzuen enkarguetan, eta Administrazio Elektronikoaren arloko zuzendaritza eskudunak administrazio-prozeduren kudeaketa xede duten enkarguetan. Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64. artikulua honako hau dio: "Enkargua egiten duen erakundeak espediente bat taxutuko du, eta, bertan, izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontukoak, kontrolakoak eta gastua onartzekoak sartuko dira, administrazio-kontratueterako ezarritakoen antzekoak".

Horri dagokionez, aldaketa-proiektuaren ardura duen Sailari gomendatzen diogu gogoeta egin dezala lehen aipatutako txostenen nahitaezotasunari eta izaera lotesleari buruz, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 79. eta 80. artikuluetan ezarritakoari egokitzeko.

20.4 artikulua aldatuko da, eta, hala, ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta IKT zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du kontratazio-mahaian. Zuzendaritza horretako titularrak proposatuta, kontratazio-organo eskudunak izendatuko du pertsona hori. Salbuetsita daude EJIE sozietate publikoak organo kudeatzaile teknologiko gisa egindako kontratazioetarako eraturako mahaiak.

Izan ere, ordenamendu juridikoa egokitu behar zaio proiektuaren proposamen honi, eta, horretarako, aldatu egin da martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa, zeinak, era berean, aldatu egin baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.2 artikulua. Zehazki, 8.2 artikulua bosgarren lerrokada aldatzea proposatzen da; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du: *«IKT ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, kontratazio-mahaiko kide izan beharko du IKTen arloko zuzendaritza eskuduneko pertsona batek. Pertsona hori kontratazio-organo eskudunak izendatuko du, aipatutako zuzendaritzaren titularrak proposatuta. Arau horretatik salbuetsita daude EJIE sozietate publikoak organo kudeatzaile teknologiko gisa egiten dituen kontratazioetarako eraturako mahaiak»*.

IV.- ONDORIOA.

Dekretu-proiektuaren edukiak, sektore publikoko kontratazioaren analizatutako alderdiei dagokienez, aintzat hartzen du sektore publikoko kontratazioaren arloko legeria. Ondorioz, gomendatzen dugu berriaz aipatzea kontratazio publikoaren arloan aplikatu beharreko legeria, bai eta hura garatzeko araudia ere.

Azkenik, txosten honetan jasotzen diren zehaztapen eta oharrei erantzungo diezuelakoan, Batzorde honek aldeko txostena eman dio martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Kudeatzeko Eredua arautzekoa) aldatzeko dekretu-proiektuari.